

Esp. Zkia.- Z/G
E.E.- 2023-00132

123/2023 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2023ko martiaren 9an.

OINARRIA: 2023ko zezeilaren 24an, udal sarrera erregistroan E202300799 inskripzio zenbakiagaz udaleko sarreren erregistro nagusian euskal presoei gizartean lekua berreskuratzeko laguntza emateko elkarte da Harrera Elkartea (IFK: G-75070896; helbidea: Bilboko (48005) Jardines kalea, 10 1. Solairua 6an, zeinak diru-laguntzea eskatu eban azaldutako helburua lortzeko asmoz.

OINARRIA: Euskal presoen kaleratzea eta gero gizarteratzea arazo ekonomiko eta sozial handiak direla eta honelako jarduerak oso garrantzitsuak dira.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.c) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 67. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Harrera elkarteari (IFK: G-75070896; helbidea: Bilboko (48005) Jardines kalea, 10 1. Solairua 6an) 500,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 920-48101 aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- Diru-laguntza hau 2024ko zezeilaren 28a baino lehen justifikauko da, 38/2003 Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera agiri honeek aurkeztuta:

- Egindako gastua egiaztetako fakturak.
- Egindako jardueren memoria.

HIRUGARRENA.- Dekretu honek oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikau eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzaille guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Iñigo Gaztelu Bilbao
Alkatea